

**EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**

Gasteizen, 2024ko urtarrilaren 8an

*Lehendakariaren hitzaldia*

Jaun andreok, egun on eta ongi etorriak!

Legegintzaldi honetako azken Euskararen Aholku Batzordera iritsi gara.

Gobernu Programan euskararentzat zehaztu genituen hiru konpromisoen betetze maila osoa lortu dugu.

Euskararen indarberritze prozesuak bere bidea egin zezan jarri ziren jomugetara heldu gara.

Erakunde eta gizarte eragileen arteko lankidetzak handitu eta hobetzea izan da lehen helburua eta, haren bidez, erantzun zaie Gobernu Programan zehaztutako helburuei.

Euskararen eremua osatzen dugunon arteko lankidetzak ez ezik, munduko hizkuntza gutxituen arteko loturak hurbiltzea ere izan da hizkuntza politikaren egitekoa.

Nafarroako Gobernuaren, Euskararen Erakunde Publikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Hiruko Itunaren bidez alde batetik; eta, HAKOBaren koordinazioa bultzatuz, bestetik, bideratu dira legealdiko programarik esanguratsuenak:

EUSKARALDIA, Euskaraz barra-barra marka berria, Euskal hedabideen dirulaguntza lerro berria, Kirolean euskara sustatzeko plana, HELDUEN EUSKALDUNTZEAn doakotasunaren bidea, GAITU hizkuntza teknologien plan berria, Jarduera sozioekonomikoan euskara sustatzeko plana edota Enpresa zein erakundeentzako ziurtagiri sistema berria.

Erakunde publikoekin izandako lankidetzak aberastu da gizarte eragileen ekarpenarekin. Beti bezala, iritzi eta ahots ezberdinek lekua izan dute hizkuntza politikarako hartu diren erabakietan eta lehenetsi diren programetan.

Bestalde, aurten, zazpigarren inkesta soziolinguistikoak jakitera eman digu gaur egungo errealitatea zein den. Gure Erkidegoan gero eta euskaldun gehiago gara 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean. Guztira 680.629 euskaldun gara, 1991n baino 261.000 gehiago. Pozik egoteko arrazoiak dira.

Euskararen indarberritze prozesuan urrats sendoak ematen ari bagara ere, asko dugu oraindik herritarren hizkuntza eskubideetan sakontzeko, baita euskarak leku sozial normalizatua erdiesteko ere. Lanean jarraitzen dugu.

Hartan garel, etorkizun hurbil eta urrunean euskararentzat indarberritzaile izango diren hiru mugarri azpimarratu nahi ditut:

- Bat: 86/1997 Dekretua aldatzera datorren Dekretu berria;
- Bi: Gaur aurkeztuko den AROA euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa; eta,
- Hiru: HEZKUNTZA lege berria.

Bi hitz: adostasuna eta lankidetzeta. Hori da gure jarrera.

Amaitzeko, abendu honetan zendu zaigun Jorge Gimenez Bech ekarri nahi dut gogora, batzordekideok. Euskararen Aholku Batzordearen idazkari izan genuen 2012-2016ko legegintzaldian, eta hizkuntza politikarekin lankidetzan jarraitu izan du legegintzaldi honetan ere bere ekarpenak eginez, adostasunean oinarritzen diren diskurtsoak eta praktikak onduz. Goian bego!

Batzordekideok, nire eskerrik zintzoenak legegintzaldi honetan aholku batzordean egin duzuen ekarpen guztiengatik. Zuen jakintza eta lana ezinbesteko gertatu dira gaur aurkeztuko diren dokumentuak osatzeko.

Euskarari etorkizun emankorra opa diot. Oraintxe bezala, lanean jarraituko dugu legegintzaldiz legegintzaldi, euskararen geroa gero eta oparagoa izan dadin.

Eskerrik asko!